



TXIKI ETA OTAEGIREN
FUSILAMENDUAREN
50. URTEURRENA.
GAZTEON BEGIETATIK.



UTZAHATU
ZINIZ

SARRERA



1 . S A R R E R A

Aurten, irailaren 27an, 50 urte beteko dira erregimen frankistak Juan Paredes "Txiki" eta Angel Otaegi, ETAko militanteak, fusilatuta hil zituenetik. Garai nahasi hauetan, nondik gatozen argi izatea, gure herriaren historia ezagutzea eta herri honen askatasunaren alde borroka egin duten pertsonak gogoratzea ezinbestekoa da, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan ari garen guztiontzat.

Horregatik, eskuartean duzun liburuxka honek Txiki eta Otaegi gogora ekarri nahi ditu, beraien ametsak gureak direla gogoratu eta horien aldeko borroka jarraitzea dagokigula azpimarratzea du helburu.

1975



Garai eta testuinguruak egiten gaituzte pertsona, gu guztiok, neurri handi batean, inguratzen gaituen eta bizitzea egokitu zaigun testuinguruaren emaitza gara. Horregatik, Txiki eta Otaegi nor izan ziren eta zein amets zituzten ulertzeko, ezinbestekoa da bizi izan zuten garaia irudikatu eta testuinguru hori ezagutzea.

Txikik eta Otaegik ez zuten 1936ko gerra ezagutu, baina haren galtzaile izateak zekarren errealitatea oso gaztetatik ezagutu zuen belaunaldi baten parte izan ziren. Jazarpena gertutik ezagutu zuen belaunaldiaren parte, alegia. Egoeraren gordintasunean, gerra osteko testuinguruan euskal erresistentzia antifrankista noraezean aurkitzen zen. Deserrian aurkitzen ziren gerra gidatu zuten buruzagi nagusiak, eta EAJren sektore nagusiek ekinbide diplomatikoaren alde egin zuten. Erregimen frankistaren aurkako erresistentzia aktibo eta armatua antolatzea erabat alboratuz.

Gerra bizi ez zuen belaunaldi hark harriduraz ikusten zuen EAJren sektore batzuen jarrera. Izan ere, haien ustez, erregimen frankistari intentsitate maila altuago batekin aurre egiteko baldintzak zeuden. Horrela, gero eta gazte gehiago agertu ziren Euskal Herrian intsurrekzioa antolatzearen alde.

Testuinguru horretan, biziberritze nazionala hauspotzeko asmoz, eta munduan zehar ernaltzen hasiak ziren nazio-askapen borroken erduei jarraituz, 1958an gazte talde batek Euskadi Ta Askatasuna sortu zuen.

Urteak aurrera joan ahala, gero eta gazte gehiago bildu zen erakundera. Jendartearen aldetik babes handiagoa jasotzen zuen neurrian, segadak ere gero eta ohikoago bihurtu ziren. 1970ean, erregimen frankistak "Burgosko prozesua" izenez ezaguna den epaiketa abiatu zuen, euskal erresistentzia

antifrankista geldiarazi eta ezabatzeko asmoz. ETAko sei kide heriotza-zigorrra kondenatu zituzten, eta beste bederatzi kide urte luzetako espetxe-zigorretara.

Honek sekulako inpaktua eragin zuen, bai euskal jendartean bai nazioartean, eta milaka herritar mobilizatu ziren epaia bertan behera uzteko eskatzeko. Mobilizazioek eragindako presioaren ondorioz, erregimen frankistak pauso bat atzera eman zuen eta kondenak bertan behera utzi zituen.

Gertakari horrek sekulako indarra eman zion erakundeari, erregimen frankistaren aurrean garaile atera zelako eta epaiketaren oihartzunak bere izena zabaldu zuelako. Horren ondoren, milaka gaztek bat egin zuten erakundearekin.

1975a urte nahasia eta mugitua izan zen. Erregimen frankistaren agorpena nabaria zen eta gero eta indartsuago sumatzen ziren aldaketarako aukerak. Hori horrela, Franko hiltzear zegoen hartan, espektatiba nagusiak independentzia eskuratzean eta, horren bitartez, jendarte berri bati bide ematean kokatzen ziren. Anbizioa, funtsean, Euskal Herriaren askatasuna lortzea eta dena aldatzea zen.

Tamalez, urteen joan-etorriak erakutsi digu Franco hil arren frankismoa ez zela desagertu, eta erregimenarekiko apurketarik gabe, horren biziraupena nola bermatu pentsatu zutela batzuk.

Horrela, 1975eko azaroaren 20an diktadorea hil ondoren, frankismoaren oinarritzko zutabek biziraun zezaten "trantsizioa" izeneko operazioari hasiera eman zioten. Besteak beste, Euskal Herriaren nazio aitortza eta euskal herritarron erabakitzeke eskubidearen ukazioa betikotuz.


Oso argigarriak dira hilzorian zegoen diktadoreak, bere heriotza gertu sumatzen zuen une horretan, utzitako bi pasarte: Bera hil ostean erregimenaren jarraitutasunaren inguruan galdetu ziotenean, honek markatuta geratu den esaldi bat esan zuen, aurrera begira dena "atado y bien atado" zegoela baieztatuz. Beste batean, Franco hil eta hamarkada batzuk igaro ondoren,

Juan Carlos I.-ak telebista saio batean jakinarazi zuenez, diktadoreak hil aurretik agindu zion, Espainiako Estatuak etorkizunean hartzen zuen forma edozein izanda ere, Espainiaren batasun nazionala denaren gainetik bermatzeko.

Bi pasarte horiek ondo sintetizatzen dute Frankoren heriotzaren osteko trantsizioaren funtsa: estaturik gabeko nazioen jazarpena eta frankismoarekin inolako apurketarik egin gabe erregimena zilegiztatzeko operazio kosmetiko baten gauzatzea.

Ordutik hona, denborak aurrera egin du, eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokak bidezidor desberdinak zeharkatu ditu. Herri hau bizirik iritsi da XXI. mendera. Hala ere, 50 urte geroago, Euskal Herriak oraindik ez du nazio gisa aitortzarik jaso, eta euskal herritarroi ukatzen jarraitzen zaigu gure herriari eta bizitzeari buruz libreki erabakitzeko eskubidea. Alegia, trantsizioan kateatu zuten hura kateatuta jarraitzen du.

TXIKI



3 . T X I K I E T A O T A E G I , B I G A Z T E

JUAN PAREDES MANOT "TXIKI".

Txiki 1954an jaio zen Extremaduran, sei anai-arrebako familia batean, bigarren semerik nagusiena izanik. Hamar urte zituela, garaiko beste hainbat familia bezala, berea Euskal Herrira bizitzera joan zen, eta Zarautz hautatu zuten bizilekutzat. Nagusitzen joan ahala, Txiki giro abertzalean gero eta gehiago murgildu zen, Euskal Herriaren historia ikasiz eta askatasunaren aldeko borroka gertutik aztertuz. Aldi berean, lantegietako prekarietateak eta lan-baldintza kaskarrek bere langile kontzientzia piztu zuten. Horrela, nerabezaroan kontzientzia politiko sendoa garatu zuen; abertzalea eta sozialista.

1970eko hamarkadaren hasieran hasi zen militatzen: hasieran EGIN, eta ondoren ETAn, hamazazpi urte zituela. Bere lehenengo zereginak ohikoak ziren: Mobilizazioak antolatzea, ikurrikak eskegitzea, propaganda banatzea... Denborak aurrera egin ahala, gero eta konpromiso eta ardura gehiago hartu zituen. Azken buruan, 1974ko abuztuan guardia zibila bera atxilotu asmoz etxean agertu zenean, ihes egin eta klandestinitatean bizitzera pasa zen.

Ipar Euskal Herrian zegoela, Jose Manuel Bujanda "Bixar" kidearekin batera bere eginkizun militanteekin jarraitu zuen. 1975. urte hasieran, Iruñean hainbat zereginetan aritu ondoren, Kataluniara lekualdatzeko agindua jaso zuen, eta hara joan zen. Hain zuzen ere, bertan atxilotu zuten, uztailaren 30ean, Iñaki Perez Beotegi "Wilson" kidearekin batera.

Bartzelonako "La Modelo" espetxean egon zen preso, epaiketa burutu arte. Espetxean zegoela jakin zuen Otaegiren aurka heriotza-zigorra ezarri zutela, eta horren aurkako protesta gisa, gose greba hasi zuen.



Angel Otaegi Etxeberriaren heriotzagaitik egindako oroigarria. ITURRIA: Lazkaoko Beneditarren Liburutegia

Atxilotu eta aste gutxira, gerra kontseilu bidezko epaiketa izango zuela jakinarazi zioten. Horrek, bere burua defendatzeko aukerak kendu zituen, eta, finean, epaiketaren helburua argi erakutsi zen: Txiki heriotzera kondenatzea. Magda Oronach izan zen haren abokatua, baina defentsa prestatzeko lau ordu baino ez zizkioten eman, eta epaiketan ez zuten defentsaren frogarik onartu. Epaiaketak hiru ordu iraun zuen, eta Txikiren erruduntasuna frogatu ez bazen ere, heriotza-zigorra ezarri zioten. Exekuzio eguna irailaren 27an ezarri zuten.

Fusilamenduaren aurreko gauean, Txikik mezu bat idatzi zuen paper zati batean, bere militante kide "Bixar"-rentzat. Honela zioen: "Bihar ni hiltzen naizenean, ez zaitezte negar egitera etorri; sekula ez naiz hilko, askatasun haizea naiz. Gora Euskadi askatuta!" Era berean, Euskal Herriko jendarteari eskainitako testamentua idatzi zuen, honela zioen pasarteetako batek: "Erakundeko nire kideei eta gure herriari jakinarazi nahi diet, libre egon naizenez gero, militante eta herriaren seme gisa nire egitekoak bete ditudala. Eta azken borondate gisa fusilatua izatea eskatu dudala, beste gudari bat bezala. Euskadirengatik hil diren guztiak oroitzuz eta gure ikurrina akorduan eramanaz, berarengatik urrun hilko bainaiz. Orain, zuei dagokizue justizia egitea."

Goizeko zazpirak aldera, Txiki bere ziegatik atera eta kamioi batean sartu zuten. Cerdanyola herriko hilerria eraman zuten, eta goizeko zortzi eta erdietan, boluntario gisa aurkeztu ziren sei militarrek bera hiltzeko prest zeuden. Une horretan, Txikik eusko gudariak abesteari ekin zion, eta jarraian militarrek haren aurka tiro egin zuten.

Hogeita bat urte zituen Txikik goiz horretan fusilaturik hil zutenean.



Antonia:

Fusilatua izan baino egun batzuk lehenago, Txikik bere ama agurtzeko aukera izan zuen. Berarekin izandako azken elkarrizketan, amak negarrez semea galduko zuela behin eta berriz errepikatu zion. Txikik, ama lasaitu nahian, seme bat galdu arren Euskal Herrian milaka irabaziko zituela esaten zion, berarekin elkartasunez ama zaintzeko prest agertuko ziren guztiei aipamena eginez. Eta bai, hala izan zen, hamarkadetan zehar milaka izan ziren "Kaixo, ama" esanez Antonia Maria Manoteri hurbildu ziren herrikideak, berak ezagutzen ez zituen arren pozik onartzen zituenak.

Antonia 2024ko uztailaren 23an zendu zen. Balio dezala bitarteko honek hamarkadetan zehar bere semearen memoria bizirik mantendu zedin borrokatutako ama horrentzako omenaldi xume gisa.

OTAE GI



ANGEL OTAEGI ETXEBERRIA.

Angel Otaegi 1942an jaio zen, Azpeitiko Nuarbe auzoan, eta bertan bizi izan zen atxilotu eta faxistek erail zuten arte. Lagunek "Caraquemada" deitzen zuten, azalean izandako gaixotasun baten ondorioz aurpegia markaz betea zuelako. Seme bakarra zen eta kirolari amorratua. Kirol desberdinetan aritzen bazen ere, txirrindularitza izan zuen bere zaletasun handiena; lagun artean, astebururo txirrindulan buelta bat edo beste ematen ibiltzen zen.

Txiki bezalaxe, Otaegi oso gazte hasi zen lanean. Ikasketak goiz utzi eta lantegi desberdinetan zein arrantzale gisa jardun zuen. Horrela, goiz garatu zuen langile kontzientzia. Era berean, Otaegik gaztetatik zuen bere burua abertzaleztat, familia abertzale eta euskaltzale baten baitan hazi baitzen. Beste ezerk baino gehiago horrek mugiarazten zuen; kontzientzia abertzale sendoa. Era berean, bere orduko lagunek, euskararekiko zuen lotura eta etengabeko hizkuntzaren defentsarako joera nabarmentzen dute. Beti ari zen besteak euskaraz egin zezaten saiatzeko eta horren garrantzia azpimarratzen.

Horrela, euskalduna eta abertzalea izanagatik, oso goiz garatu zuen jarrera antifrankista irmoa. Beste askok bezala, hasieran EGIN aritu zen egitasmoko desberdinetan laguntzen. Gutxira, ETAREN inguruko militanteekin harremanak hasi eta 1965tik aurrera erakundeari zeregin desberdinetan laguntza eskaintzen aritu zen.

1970ko hamarkada hasieran hasi zen intentsitate altuagoan zeregin desberdinetan, militante gisa, 1974an atxilotu zuten arte. Urte hartako azaroan atxilotu zuten, ustez zazpi hilabete lehenago ekintza batean parte-hartu izanagatik. Angeli Jose Antonio Garmendia "Tupa" eta Jose Maria Arruabarrena "Tanque" ETAKO militanteei laguntza eskaini izana leporatu zioten. Tupa eta Tanque, 1974ko abuztuan atxilotu zituzten. Atxiloketa burutzean polizia Tupa larriki zauritu zuten, buruan tiro emanez. Horrela, ospitalean zegoela bortizki galdekatu eta

Otaegiren ustezko parte-hartzea baieztatzera behartua izan zen, nahiz eta bizi zuen osasun egoera larria medio ez zen ezta hitz egiteko gai izan eta paper bat sinatzera behartu zuten.

Otaegi azaroaren 18an atxilotu zuten, eta sei hilabete igaro ostean, Martuteneko espetxetik, Burgoseko espetxera lekualdatu zuten; han baitzegoen bera epaituko zuen epaitegi militarra. Abuztuaren 28an epaitu zituzten, Tupa eta bera, kontseilu militar batean, eta bost ordu baino ez zituzten behar izan biak heriotzara kondenatzeko. Irailaren 27a ezarri zuten exekuzio eguna.

Irailaren 26an, haren osasun egoera larriaren ondorioz, Tuparen heriotza-zigorra bertan behera utzi eta bizi osorako espetxe zigorra ezarri zioten. Euskal Herrian zein nazioartean milaka mobilizazio burutu eta nazioarteko komunitateak hainbat saiakera egin bazituen ere, Angel hurrengo egunean fusilatua izan zen.

Otaegik bakarrik eman zituen bere azken orduak. Amak bost minutuz berarekin egotea lortu zuen eta elkar agurtu ostean Angelek lasai egoteko eskatu zion. Harro egon beharra zuela, haren semeak Euskal Herriarengatik odola emango baitzuen. Horiek izan ziren haren amari esandako azken hitzak. Bost minutu horiek amaituta amari joateko agindu zioten eta gau osoan zehar familiari ukatu zioten harekin azken ordu horiek igarotzea.

Goizeko zortzietan ziegatik atera eta espetxe kanpoaldera eramán zuten. Han, zortzi bolondres militarrek zituen zain. Bederatziak hogeita bost gutxiagotan fusilatu zuten.

A S K A

T A S U

N E R A



Behin, Jorge Oteizak gure
borroka arraunaren antzekoa
dela adierazi zuen: Zenbaitetan
atzera begira jartzea egokitzen
zaigulako, indarrak hartu eta
aurrera egin ahal izateko.

Hori da, hain zuzen, Txiki eta
Otaegi gogora ekarriz egin nahi
duguna: Atzera begiratzea, gure
herriaren alde borrokatu dutenak
gogoratu eta Euskal Herriaren
askatasunaren alde borrokan
jarraitzeko indarrak batzea.
Etenik gabe, ekin eta bultza
askatasunera.



ERNAI